



2023ko URTARRILA-IRAILA EMAITZAK

2023ko azaroak 15

LEGE OHARRA

DOKUMENTU HONEK INFORMAZIO-HELBURUA DU SOILIK.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eskusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek alde aurretik idatzizko baimena eman gabe.

AURKIBIDEA

1. 2023ko 9Hko DATU
AIPAGARRIENAK
2. FINANTZA INFORMAZIOA
3. JASANGARRITASUNA
4. AURREIKUSPENAK
5. ERANSKINAK



 1

2023ko 9Hko DATU AIPAGARRIENAK

KONTRATAZIOA

2.707 M€
-% 29

vs 2022ko 9H

ZORROA

13.222 M€
-% 0

vs 2022/12/31

SALMENTAK

2.735 M€
+% 25

vs 2022ko 9H

EBIT

128 M€
+% 32

vs 2022ko 9H

EBIT Mj

% 4,7
ehuneko +0,3
puntu

vs 2022ko 9H

JASANGARRITASUNA

Eguneraketa eta ESG ratingak hobetzea:

- MSCI: A
- S&P: 63
- ECOVADIS: 83 eta Platinozko domina

Kontratazioa urteko helburuarekin
lerrokatuta

Book-to-bill=1, 2023rako helburuarekin bat

Eskari-zorroaren egonkortasuna, maila
altutan


Taldearen salmentetan gorakada handia, bi
segmentuei esker: trenak eta autobusak.

Taldearen errentagarritasunaren goranzko
progresioa, salmenten igoeraren gainera,
eta helburuarekin lerrokatuta.

Nabarmen hobetu da Taldearen Ecovadiseko
emaitza, 2023rako ezarritako helburua
gaindituta.



**EGUNGO EKITALDIAREN GARAPENA AURREZ IKUSITAKOAREKIN BAT DATOR ETA HORREK
BAIEZTATU EGIN DITU 2023RAKO HAZKUNDEAREKIN, ERRENTAGARRITASUNAREKIN ETA
JASANGARRITASUNAREKIN LOTUTAKO HELBURUAK**

KONTRATAZIOA URTEKO HELBURUAREKIN LERROKATUTA



2022an izandako kontratazio-errekor historikoak oraindik ere alderaketa egiteko oinarri altua erakusten du.

2023/09/30eko kontratazioak ez ditu esleitutako eta iragarritako, baina oraindik sinatu gabe dauden kontratuak biltzen. Horien balioa ia 800 M€koa da.



Kontratazioak goranzko joera du eta urteko helburura gerturatu ari da.

Kontratazio-profila 2023ko 3HHan:

- **Ibilgailuen (trenak eta autobusak) proportzio handia** kontratazioan.
- Tren-ibilgailuekin lotutako proiektuen kontratazio berria, batez ere, **konfiantza berritzen duten bezero historikoetatik dator batik bat** (Renfe eta Euskotren).
- **Solarisen kontratazioaren eragina handia da** unitate-bolumena eta zero isurpeneko autobusen proportzio handia direla eta.
- **BtB=1** trenen eta autobusen segmentuetan, **urteko helburuarekin lerrokatuta.**
- Geografiari dagokionez, **Espainiako** kontratazioak gorakada izan du (**geografia hori Taldearentzat lehentasun handikoa da**).

Kontratazio berria negozioen helburuekin bat dator.

Aukera-bolumen handia zorroan esleitzeko fase aurreratuan (epe laburrera begira gauza daiteke).

(jarraipena)

2023ko 3HHan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak

/ RENFE DISTANTZIA ERTAINA (ESPAINIA)

- Distantzia ertaineko 32 tren; haietako 24 tren 3 kotxeakoak dira eta beste 8 tren, aldiz, 4 kotxeakoak.
- 2022aren amaieran sinatutako hasierako kontratuaren baitan bezeroak gauzatzeko unitateen **lehen zabalkuntza-aukera da**.
- Oinarri-kontratuak **etorkizunerako aukera osagarriak** jasotzen ditu (gehienez beste 10 tren)

**190 M€
inguru**



/ EUSKOTREN (ESPAINIA)

- 4 kotxeako 5 tren.
- CAFeko treneratutako 1. mailako ERTMS ekipoen hornidura 5 tren horientzat eta Euskotrenen 950 serieko zerbitzuan dauden 28 unitateentzat.
- CAFek lehendik ezagutzen du bezeroa, azken urteotan tren-flota ugari entregatu baitizkio.

**60 M€
inguru**



/ ZERO ISURPENENKO AUTOBUSAK ALEMANIARAKO, ITALIARAKO ETA SUEDIARAKO

AUTOBUS ELEKTRIKOAK CAGLIARIRAKO (ITALIA)

- 98 autobus elektriko, haietako 80 autobus 12 metrokoak eta 18 autobus 18 metroko autobus artikulatuak
- Solarisek **bezeroarekin harreman historikoa** du eta aurretik autobus-flota ugari entregatu dizkio.

HIDROGENO BIDEZKO AUTOBUSAK DUISBURG-ERAKO (ALEMANIA)

- Hidrogeno bidezko 25 autobus, haietako 11 autobus 12 metrokoak eta gainerako 14 autobusak 18 metrokoak.
- **Arrakasta izan du 18 metroko hidrogeno bidezko autobus artikulatuak** (orain hilabete gutxi gehitu da produktuen portfoliora).
- Duisburgo hiriak eskatutako hidrogeno bidezko lehen autobusak dira.

HIDROGENO BIDEZKO AUTOBUSAK KOLONIARAKO (ALEMANIA)

- Hidrogeno bidez bultzatutako 18 metroko 18 autobus artikulatu.
- Horixe izango da Koloniak CAF Taldeari egindako **hidrogeno bidezko autobusen hirugarren eskaria**.

AUTOBUS ELEKTRIKOAK NOBINA STOCKHOLM OPERATOREARENTZAKO (SUEDIA)

- 55 autobus elektriko Urbino 15 metrokoak eta pisu baxukoak. II klaseko ibilgailuak, hau da, **hiri artekoak**.


AUTOBUS ELEKTRIKOAK KRISTIANSTAD-ERAKO (SUEDIA)

- Solairu baxuko 23 autobus elektriko, horietako 20 15 metroko Urbino autobus elektriko eta horietako 3 12 metrokoak. Guztiak **hiriko zein hiri arteko bideetan zirkulatzeko pentsatuta**.

**140 M€
inguru**



ESKARI ZORROAREN EGONKORTASUNA, MAILA ALTUTAN



Taldearen guztizko eskari-zorroa ia mantendu egin da.

Solarisen eskari-zorroak hedapen handia izan du 2023ko 3.HHan eta horrek 2024rako jardueraren zati handi bat bermatu du.

Eskarien zorroaren egungo errentagarritasuna **Taldearen helburu estrategikoekin lerrokatuta** dago.

Zorro horrek **ez ditu jasotzen** 2023ko 3HHaren amaieran sinatzeke zeuden edo 2023ko 3HHaren amaieraren ondoren sinatutako esleipen hauek:

- Renferekin sinatutako oinarri-kontratuko distantzia ertaineko 17 tren elektrikoren mantentze integrala 15 urtez (Espainia)
- Hidrogeno bidezko autobusen hornidura Veneziarako eta Boloniarako (Italia)
- Hiru modutako (trimodo) 10 trenen hornikuntza LNER operadorearentzat eta horien mantentze-lana 8 urtez (Erresuma Batua).

Esleipen horien guztizko balioa ia **800 M€**koa da.

¹Frantzia eta Alemanian erositako perimetroaren 2022 urte osoko salmentak jasotzen ditu (216 M€).

²Ratioa 2023/09/30ean, 2022an izandako salmenten gainean kalkulaturik.



/ 2
FINANTZA
INFORMAZIOA

EMAITZA GARBIAREN HOBKUNTZAK SALMENTETAN IZANDAKO IGOERA GAINDITU DU

(milioi eurotan)	2022ko 9H	2023ko 9H	Ald. 2023ko 9H/2022ko 9H
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	2.191	2.735	+% 25
USTIAPENAREN EMAITZA	97	128	+% 32
EBIT Marjinaren %	% 4,4	% 4,7	-
Finantza arloko emaitza	(42)	(42)	-% 1
Finantza-sarrerak	6	11	+% 71
Finantza-gastuak	(46)	(54)	+% 18
Trukeko edo kanbioko aldeak	3	0	-% 98
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	(6)	1	-
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza	5	4	-% 21
ZERGEN AURREKO EMAITZA	60	91	+% 50
Irabazien gaineko zerga	(25)	(36)	+% 43
Zergen ondoren, emaitza garbia	36	55	+% 54
Interes minoritarioak	1,9	2,2	+% 18
ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA	34	53	+% 56

Salmenta bateratuek igoera handia izan dute eta eskarien zorroan aurrez ikusitako exekuzioarekin bat etorri dira

Taldearen errentagarritasun operatiboak goranzko joera izan du, aurrez ikusitakoaren arabera. Autobusen segmentuak izandako pixkanakako susperraldiak bultzatu du hori.


Finantza-emaitza ia aldaketarik gabe mantendu da tasen igoera dela eta finantza-gastua handiagoa izan den arren.

Emaidza garbiak igoera esanguratsua izan eta EBITek izandako hobekuntza gainditu du.

BI SEGMENTUEK EKARPEN SENDOA EGIN DIOTE TALDEAREN HAZKUNDEARI


SALMENTAK

/ BATERATUA



Salmentek igoera handia izan dute **zorro organikoaren exekuzio handia** eta ekarpen ez-organikoa direla eta.


/ TREN ARLOA



Hirugarren hiruhilekoan, **salmentek aldi baterako gorakada izan dute** proiektuen exekuzio-zikloa dela eta.

Gainera, azpimarratu beharrekoa da honako hauekin lotutako igoera: Proiektu integralak, Tren-ibilgailuen birgaitzea eta Osagaien hornidura.

/ AUTOBUSAK




Aurrera jarraitu du entregen erritmoak hiruhilekoan, eta zero isurpeneko² autobusen entregek proportzio historikoa lortu dute (unitate-balio handiagoa dute).

¹ Zifra horrek barne hartzen du 2022ko abuztuan erositako perimetro berriatik eratorritako 149 M€-ko zenbatekoa. Erositako perimetro berriaren inpaktua albo batera utzita, salmenta organiko bateratuek eta tren arlokoek % 19 eta % 18 egingo zuketena gora hurrenez hurren.

² Entregatutako unitateen % 55 autobus elektrikoak eta hidrogeno bidezkoak dira.

ERRENTAGARRITASUNAK HOBEKUNTZA ESANGURATSUA IZAN DU 2023KO 3HH-AN ETA AURREIKUSPENAK BETE DIRA

EBIT (M€) eta EBIT Marjina (%)



Errentagarritasun operatiboa azken hiruhilekoan **suspertzen joan da**, ekitaldiaren hasieran iragarri zen moduan.

Hornidura-katearen ezegonkortasuna gutxitu egin da pixkanaka, baita Ukrainako gerrak eta inflazio testuinguruak eragindako kostuen igoera jasan duen autobus-zorroa ere.


An aerial photograph showing a landscape with a road, railway tracks, and greenery. The road is a two-lane asphalt road with a dashed white center line. To the left of the road are railway tracks. The surrounding area is lush green with trees and fields. The text '3' is overlaid on the image, with a red diagonal slash to its left.

/ 3

JASANGARRITASUNA

JASANGARRITASUN ARLOKO AURRERAPEN ESANGURATSU BERRIAK

PLATINOZKO DOMINA ECOVADIS-EK




- ✓ Aurreko urteko puntuazioa hobetu da.
- ✓ 2023rako finkatutako helburua gainditu da.
- ✓ Platinozko domina mantendu da.



CAF TALDEA ECOVADIS UNIBERTSOAN PUNTUATUTAKO ENPRESA ONENEN % 1EAN SARTUTA DAGO.

CAF-EK S&P BALORAZIOAN SEKTOREAREN GAINETI JARRAITZEN DU ARGI ETA GARBI



CAF BERE KONPARAGARRIEN GAIANEAN BERDINTZEN DA S&P-K GERO ETA EXIJENTZIAGO ETA ESKAINTZA KONPLAXUKO TESTUINGURUAN.

CAF AUKERATU DUTE IBEX ESG OSATZEKO

Índice IBEX® ESG

- ✓ IBEX® ESG INDIZEAK KONPAINIEN GARAPENA NEURTZEN DU INGURUMEN, GIZARTE ETA GOBERNANTZA (ESG) ARLOKO JASANGARRITASUNEN FAKTOREAK KONTUAN HARTUTA.
- ✓ IBEX® ESG INDIZEA JASANGARRITASUNEN HELBURUEKIN LOTUTA DAGO. HALA, KOTIZATUTAKO ESPAINIAR KONPAINIETAN, JARDUNBIDE JASANGARRIAK BULTZATZEN DITU.
- ✓ JASANGARRITASUN FAKTOREAK NEURTZEKO, INRATE-K PRESTATUTAKO METRIKA ERABILTZEN DA.

¹Trenen sektorearen batezbestekoa (Alstom; Stadler (2022); Siemens Mobility; Hitachi Rail; CAF)

²"IEQ Machinery and Electrical Equipment" industriako batezbestekoa

³Birformatua



/ 4

AURREIKUSPENAK

URTE HASIERAKO AURREIKUSPENEI EUTSI DIEGU

/ 2023

Book-to-bill	>	≥1 Kontratazio selektiboa
Salmentak	>	+% 10-15
EBIT Emitza garbia	>	Errentagarritasunaren hobekuntza 2022 urtearekiko
Dibidendua	>	Emitzen bilakaerarekin bat dator
DFN	>	Egonkortasuna 2022. urtearekiko
JASANGARRITASUNA	>	Isurpenen murrizketa: egonkortasuna ESG ratioen kalifikazioa hobetuta

A photograph of a business meeting in progress. Several people are seated around a table, looking at and pointing to data on tablets and laptops. The scene is dimly lit, with a blueish tint, suggesting a professional and focused environment. The text '5 ERANSKINAK' is overlaid on the left side of the image.

/ 5 ERANSKINAK

2023KO URTARRILA- IRAILA ALDIKO ESKARIEN ZORROAN JASOTAKO ETA IRAGARRITAKO KONTRATUAK

DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	DESKRIBAPENA	BEZEROA	MOTA	AUKERA OSAGARRIAK	NEGOZIOA						ZENBATE KOA (M €)	
							IBILGAILUAK		GAINERAKO NEGOZIOAK					
							# unit.	Plataforma	Nezozioa	Irismena	Ezaugarriak			
2023ko 1HH	Aschaffenburg	Alemania	Autobusen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez			✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	12	>40	
2023ko 1HH	Cagliari	Sardinia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarriko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Autobus hibridoen hornidura	100		
2023ko 1HH	Budapest	Hungaria	Tranbietarako hornidurak	Berria ez	Luzapena	Bai	✓	31	Urbos				-	
2023ko 1HH	Coradia Polyvalent	Frantzia eta Senegal	Eskualdeko trenen hornidura	Berria ez	Luzapena	Bai	✓	18	Coradia Polyvalent				161	
2023ko 2HH	Aldikoak	Espainia	Aldiko trenen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Bai	✓	29	-				~200	
2023ko 2HH	Alcala de Guadaira	Espainia	Tranbietarako hornidurak eta mantentze lanak	Berria ez	Oinarri-kontratua	Bai	✓	6	Urbos	✓	Zerbitzuak	Tranbien mantentze-lanak	2	-
2023ko 2HH	Rostock	Alemania	Autobusen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	52	-
2023ko 2HH	Docklands	Erresuma Batua	Metro automatikoen hornidura	Berria ez	Luzapena	Ez	✓	11	-				>90	
2023ko 2HH	Napoli	Italia	Metroen hornidura eta mantentze lanak	Berria ez	Luzapena	Ez	✓	6	-	✓	Zerbitzuak	Metroen mantenimendua	3	-
2023ko 2HH	Palermo	Italia	Tranbietarako hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez	✓	9	Urbos					
2023ko 2HH	Aarhus	Danimarka	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoaren hornidura	56	-
2023ko 3HH	Distantzia ertaina	Espainia	Distantzia ertaineko trenen hornidura	Berria ez	Luzapena	Bai	✓	32	-				~190	
2023ko 3HH	Cagliari	Italia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoaren hornidura	98	-
2023ko 3HH	Euskotren	Espainia	Aldiriko trenen eta seinaleztapen-sistemen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez	✓	5	-	✓	Seinaleztapena	1. mailako ERTMS ekipoen hornidura	-	-60
2023ko 3HH	Duisburg	Alemania	Autobusen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	25	-
2023ko 3HH	Kolonia	Alemania	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	18	-
2023ko 3HH	Nobina Stockholm	Suecia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoaren hornidura	55	
2023ko 3HH	Kristianstad	Suedia	Autobusen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoaren hornidura	23	-45

ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2023ko Lehen Sei**hilekoko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean (www.cnmv.es) eta sozietatearen webgunean (www.caf.net) dago irakurgai, 9. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE
FERROCARRILES, S.A. Y
SOCIEDADES DEPENDIENTES QUE
COMPONEN EL GRUPO CAF
(CONSOLIDADO)



INFORME PRIMER SEMESTRE 2023

JULIO 2023

TRANSPORT SYSTEMS
TRAINS
BUSES
SIGNALLING
COMPONENTS
SERVICES

Your Way
to Future Mobility

**TRUST
IN MOTION**